

ERLIEBEA ALDATU EGITEN DA


HASI AURRETIK. Berrikusi Lurreko erliebea nola aldatzen den azaltzen duten orrialdeak, 6. unitatean.

- 1 Higadura harrietako edo lurzoruko materialak herrestatzen direnean gertatzen da. Oro har, hiru eragileren ondorioz gertatzen da: ibaiak, itsasoa eta haizea. Lotu testuak argazkiekin.

Ibaiek beren ibilgua higatzen dute eta, ondorioz, haranak eratzen dituzte.

Itsasoak itsaslabarren behealdea higatzen du, eta itsaslabarrak erori egiten dira.

Haizeak harea daramanean, harrien behealdea higatzen du.



- 2 Garraioa gertatzen da urak edo haizeak materiala higituak eramaten ditutenean. Sedimentazioa gertatzen da material horiek metatzen direnean. Hori kontuan izanda, lotu:

A



B



C



D



Garraioa

Sedimentazioa